



ORDEN FORAL

Giza Baliabideetako Zerbitzua
Espte.zk. 240/2026 (12604)

Arabako Foru Aldundian hutsik dauden lanpostuak betetzeko lekualdatze lehiaketarako deialdia egitea eta lehiaketa hori arautuko duten oinarriak onestea

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.2 artikulua xedatutakoaren arabera, funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarritakoaren arabera beteko dira, lehiaketa sistemen eta izendapen askeko sistemen bitartez.

97. artikulua eta hurrengoek lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzeko deialdia arautzen dute. Era berean, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onesten duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak (II. kapitulua) lehiaketa bidez betetzeko prozedura garatzen du.

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzea. Lanpostu horiek aurrekontu-zuzkidura dute, eta lehiaketa prozeduraren bidez bete behar dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 46. artikulua arabera, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.1.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori).

Diputatu Nagusiaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lekualdatze lehiaketarako deialdia egitea lanpostuak betetzeko Arabako Foru Aldundian.

Bigarrena. Onestea deialdia arautzen dituzten oinarriak (I. eranskina), merezimendu orokorrekin fasearekin deitutako lanpostuen zerrenda (II. eranskina), merezimendu orokor eta espeziфикoen fasearekin deitutako lanpostuen zerrenda (III. eranskina) eta parte hartzeko eskaera orria (IV. eranskina).

Hirugarrena. Deialdiaren xede diren lanpostuei esleitutako eginkizun eta egitekoak argitaratzea (V. eranskina).



Laugarrena. 10 egun balioduneko epea ezartzea, deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko. Epe hori foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren foru diputatuari, hilabeteko epean, agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz.

Cristina González Calvar

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu,
Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren
Saileko foru diputatua
Primera Teniente de Diputado General
y Diputada Foral de Empleo, Comercio,
Turismo y Administración Foral

Koldo Mikel Ruilope González

Funtzio Publikoko zuzendaria
Director de Función Pública